# Klik bikoitza

# LAGUNTZA

Edozein webgunetan hitz baten gainean klik egin eta Elhuyar Hiztegiko sarrerara eramango gaituen plugina da hau.

Hitz baten gainen klik egiten dugunetik hitza hiztegian erakusten digun arte ondoko bidea egiten du aplikazioak:

- aukeratutako hitza detektatu
- aukeratutako hitzaren lema lortu: lematizazioa aplikatzen du. Hitzak deklinabide markaren bat badu edo flexionatua bada, forma hori ez da hiztegian bere horretan egongo. Adibidez, *arintzeko* hitzaren lema eta hiztegian topatuko duen forma *arindu* da.
- nabigatzailean fitxa berri bat ireki eta bertan sarrera horren informazioa erakutsiko du.

---

## Sarrera pantaila

Plugina instalatu ondoren Elhuyarren ikonoa agertuko da nabigatzailearen barran, ikono horri klik egindakoan pluginaren pantaila agertuko da. Hemendik, plugina aktibatu/desaktibatzeko aukera izango dugu, baita laguntza edo pluginaren informazio orokorra ikusteko ere.

Klik bikoitza desaktibatzen dugunean hitz baten gainean bi klik egiten ditugunean ez du hiztegian bilaketarik egingo, batzuetan aukera hau nekagarria gerta daiteke, beraz desaktibatzeko aukera sortu dugu. Klik bikoitza desaktibatu arren, testuinguru-menutik egin ditzakegu kontsultak.




*Klik bikoitza aktibatua.*




*Klik bikoitza desaktibatua.*

---

## Funtzionamendua

Bi modutara erabili daiteke plugina:

- ## hitz baten gainean bi klik eginda

  Saguarekin hitz baten gainean bi klik eginez. Adibidez, *ikerketaren* hitzaren gainean bi klik egin ondoren, *ikerketa* sarrerara eramango gaitu. Kontuan izan aukera honek euskaraz dauden hitzekin bakarrik dabilela.




*Saguarekin ikerketaren hitzaren gainean bi klik egin*




*'Ikerketa' sarrerara eramango gaitu.*

- ## hitz bat aukeratu eta eskuineko botoia erabilita

Batzuetan bi klik egiteak ez digu balioko: bi hitz hautatu nahi ditugulako, hitz baten zati bat, gaztelaniaz bilatu nahi dugulako... Kasu horietan saguarekin eskuz hautatu ondoren, eskuineko botoiari emanda testuinguru-menua agertuko zaigu, bertan izango dugu hautatutako testua euskaraz edo gaztelaniaz bilatzeko aukera. Ondoren, aurreko aukerak egiten zuen funtzionamendu bera izango du.




*Hitz bat aukeratu eta saguaren eskuineko botoiari eman ondoren agertuko da pluginaren testuinguru-menua. 'Erakartzen' hitza bilatuta*




'erakarri' sarrerara eramango gaitu.

Gaztelaniaz gauza bera:




Hitz bat hautatu, saguaren eskuineko botoiari eman eta pluginaren testuinguru-menuan gaztelania aukeratu. 'comprometido' hitza bilatuta.




*'comprometer' sarrerara eramango gaitu.*

---

# Arazoak

Nabigatzailearen hobespenen arabera, gerta daiteke hiztegien fitxa ez irekitzea eta ondoko mezua agertzea:




*Firefox-ek pop-up leihoak irekitzea galarazita dituela dioen mezua.*

Arazo hori konpondu nahi badugu, Firefox-en hobespenetara joan eta *Pribatutasuna eta segurtasuna* atalean *Blokeatu pop-up leihoak* aukera deshautatu behar dugu:




*"Blokeatu pop-up leihoak" aukera desaktibatu.*